

KANALAK

Negozio batek ondo funtzionatu dezan kontuan hartu beharreko beste puntu garrantzitsu bat bezeroari gure zerbitzuak iristearaztea da, hau da kanalak. Hainbat kanal mota daude eta kanal mota bakoitzak abantaila eta desabantaila desberdinak dituzte, beraz kanal egokia zehaztea oso garrantzitsua da, edozein negoziok arrakasta eduki ahal izateko.

Hasteko, bezeroak guregana iristeko eta gurekin tratatu pertsonalago bat jasotzeko, gure zerbitzuen inguruan informazio gehiago edo gure zerbitzuak kontratatzeke bulego bat edukiko dugu. Bertan informazioa emateko hainbat pertsona egongo dira, langileak hain zuzen ere. Tratuak ere egin ahalko dira eta gure zerbitzuak kontratatu. Beraz kanal propio bat erabiliko dugu, guk kontratatutako langileekin gure lokal propio batekin.

Gure kasuan zerbitzu bat eskaintzen dugunez eta ez produktu jakin bat, kanal aukeraketa zerbait zailtxoagoa egiten da. Guk kanalekin bezeroaren produktuak gure lan gunera eramateko eta guk gure lana bukatutakoan haiengana bidaltzeko erabiliko ditugu. Beraiengana iristeko telefono, e-mail eta bulego bat edukiko ditugu, Urretxu-Zumarragan hain zuzen ere, (geroago Donostian) bezeroek gure zerbitzuak kontratatzeke zein hauetaz hitz-egiteko informazio bila etorri ahalko direnak.



Eta beraien produktuak guregana ekartzeko, beraiekin tratatu bat egingo dugu, kanal mota zehazteko.

Beste aldetik, gure produktuak lan gunera eta lan gunetik berriro bezeroarengana bidaltzeko beste kanal mota bat erabiliko dugu. Bezeroarekin kontaktuan jarriko gara eta haien eskaria galdetuko diegu, garraioa ondo zehazteko. Haiekin entrega puntu bat zehaztuko dugu, eta beraiekin bertan elkartuko gara produktuak guregana bidaltzeko. Puntu bat ez badugu zehazten, hauen ofizinetara edo biltokira bidaliko dizkiegu.

Bezeroen eskaeraren arabera, guk bidaliko diegu (guk daukagun furgoneta komertzial batean) edo garraio zerbitzu bat ematen duten enpresa bat kontratatu beharko dugu , beraz hainbat kanal erabili beharko ditugu, baldintzaren arabera.

Laburbilduz, produktuak gure lantokira bidaltzeko, haiekin adostuko dugu kanal mota , eta behin guk produktuei mantenua egin eta hauek konpondutakoan, beraiengana bueltatzeko (eskariaren arabera) guk eraman edo garraio enpresa bat kontratatuko dugu. Gure helburua natura zaintzea denez, garraio iraunkor bat hautatuko dugu, ekologiaren alde lan egiten duen enpresa batekin, lehen esan bezala, DHL-rekin.

Bestalde komunikazio kanalak finkatzea ere egin behar bat da, ezagutzera ematea oso garrantzitsua delako guretzat, jende gehiagok EKOZIR ezagutu dezan. Lehen adierazi dugun bezala gure web partikularra izateaz aparte (bertan guri buruz informazioa eta bloga egingo dugu) beste publizitate kanal bat beharko dugu, bezero posibleengana iristeko. Hortaz, interneten publizitatea jarriko dugu (forocoches-en) eta elkarteak egiten ditugun enprekin ere publizitatea egingo dugu, gure zerbitzuarena.

Sare sozialak ere erabiliko ditugu ezagutzera emateko, gaur egungo gizartean sare sozialak oso nabarmenak direlako, eta bertan jende asko interkonektatuta dagoenez, erraminta hau erabiliko dugu gure zerbitzuei eta guri buruz informazioa eman eta publizitatea egiteko. Kartel bat diseinatuko dugu, gure sare sozial, webgunean, eta kaleetatik jartzek. Ez da bakarrik herriko kaleetan izango, beste herrietan ere ordea.

EKOZIR